

PRENTSA OHARRA 2019.04.05

Euskal ikus-entzunezko sektoreko hainbat enpresa izango dira MIPTV azokan

MIPTV azoka **apirilaren 8tik 11ra bitartean** egingo da aurten Cannesen eta, beste behin, zenbait euskal enpresa bertaratuko dira Frantziako hirira. **Etxepare Euskal Institutua, Zineuskadi eta Eiken-ek** (Basque Audiovisual and Digital Content Cluster), elkarlanean sortutako Basque Audiovisual izenarekin, gune propioa izango dute beste behin.

MIPTV munduko telebista eta media merkatu garrantzitsuenetakoa da eta entretenimendu digitaleko sektorearen nazioarteko eragile garrantzitsuenen topagunea. Hori dela eta, merkatu hau aukera bikaina izaten da erosleekin kontaktuak egin eta sektorearen nazioartekotzea sustatzeko.

Aurten **A film to kill for, Bilbao Seriesland Festival, Expressive Media Project, Pausoka Entertainment, Prime Time Media eta New Media** izango dira *Basque Audiovisual* gunean egongo diren enpresak, baita **EITB** ere. Hauen animazio produktu, dokumental, film, formatu eta multimedia produktuak merkatuan banatuko den *Basque Audiovisual* katalogoan jasoko dira. Halaber, **Eiken-eko eta Zineuskadiko ordezkariak ere joango dira Cannes-era nazioarteko kontaktuen sarea indartu eta euskal enpresentzat negozio aukerak sortzeko helburuarekin.**

Merkatu honetan parte hartzeak **euskal produktuak saldu, ekoiztu, ezagutzera eman eta nazioartekotzeko aukera** eskaintzeaz gain, **beste herrialdeetako sortzaile, ekoizle, banatzaile** eta ikus-entzunezko eta eduki digitalen balio kate osoan parte hartzen duten **profesionalekin** bat egitea ahalbidetzen du. Hori dela eta, Etxepare Euskal Institutua, Zineuskadi eta Eiken-ek helburu bezala jarri dute gure lurraldearen sustapena, Euskal Herria nazioarteko ekoizpen gune bezala aurkeztuz

eta Eiken etorkizunera begira egin daitezkeen filmaketetarako lotura moduan aurkeztuz.

Produktuz betetako katalogoa

Basque Audiovisual katalogoak, MIPTV azokara joango diren enpresei eta euren lan berri edo garrantzitsuei buruzko informazioa bilduko du.

A film to kill for luzera motzeko formatu digitalen enpresa bat da. Eurek azokara daramaten lan nagusia *Otsoen Lurraldean* fikziozko sail digitala da, 10 minutuko pasarte laburretan mundu post-apokaliptiko bateko abenturak kontatzen dituen. Ekipo berberak daraman **Bilbao Seriesland Festival**, oster, tankera ezberdineko enpresa bat da; Bilbon urtero egiten den jaialdi bat baita. 5. edizioa izango du aurtengo udazkenean, eta azokara, bertan parte hartu duten telesail eta sail digitalen promozioa egitera doaz. Ez da euren lehenengo aldia Cannesen.

Expressive Media Projects enpresak ere urte batzuk daramatza ikus-entzunezko nazioarteko azoka hau bisitatzen. Telebistarako edukien banaketa egiteaz arduratzen da, eta Cannesera aurten *El Lector de Huesos* programaren formatua eramango dute, nazioartean saltzeko. Programa honek Pako Etxeberria auzitegi medikua eta Dani Alvarez kazetaria ditu protagonista, eta azken urteotan espainiar estatuan gertatutako hilketarik esanguratsuenen errebasoa egiten dute.

MIPTV bisitatuko duen beste enpresa bat da **Pausoka Entertainment**. Hauek ere jada esperientzia dute azoka honetan, eta daramaten produktuak aurreko urteetan arrakasta nabarmena izan du: *Durmiendo con el enemigo* formatuak hain zuzen. Programa honen helburua, politikari baten ideien aurka dauden hainbat pertsonak politikari horrekin egun oso bat igarotzean datza, elkarrekin egon ondoren iritzia aldatzen duten ala ez ikusteko. Saioak arrakasta handia izan du Alemanian, adibidez.

Beste saio ezagun bat daraman enpresa **Prime Time Media** da, EITBn hainbat edizio arrakastatsu egin dituen *Gailurra Xtrem* saioa aurkeztuko baitute Basque Audiovisual gunean. Ibon Gaztañazpi aurkezle duen programa honek hainbat lehiakide eramaten ditu mendian barrena espedizio bat egitera, korrika edota oinez.

Amaitzeko, MIPTV lehen aldiz bisitatuko duen enpresa bat ere badago aurtengo edizioan: **New Digital Media**. Honek, azken urteotan entzute handia edukitzen ari diren sukaldaritza saioen lekukoa hartu, eta formatu berri bat eramango dute Cannesera: *La Mejor Receta*. Kasu honetan, epaimahai batek gidaturik, lau sukaldari euskaldunek euren errezeta onena prestatu beharko dute, denek osagai bera erabilita.

Info+

Mikel Lasa



Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileak plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus